

gure lapikoa



Ugao-Miraballesko Udalaren aldizkaria 2013ko ekaina 18. zenbakia

UGAO-MIRABALLESKO UDALAK 2013rako AURREKONTUAK ONARTU DITU

Ugao-Miraballesek apirileko Udalbatzan 2013 ekitaldirako aurrekontuak onartu zituen. Onartutako aurrekontua guztira 4.432.685,39 €koa da, kopuruari dagokionez 2006ko urtekoaren oso antzekoa.

2012koekin alderatuta, aurreikusitako **sarrerak** %3,7 jaitsi dira. Hala ere, benetako jaitsiera %11,03koa da, sarreraren VI. kapituluaren Arana eta Lupardo jarduketa unitatearen urbanizatzeko ardura duten 2 banku-entitateenak diren 334.137,28 € zenbatuta baitaude. Aipatutako urbanizazioa kooperazio-sistema bidez eginenez udalak berak egin behar ditu ordainketak. Beraz, kopuru hori ez da udalak gastuei edo inbertsioei aurre egiteko dituen sarreraren artean sartzen. Horrela, udalak sarreretan 2012an baino 507.870,03 € gutxiago izango ditu. **Udalkutxari** 2.253.948 € dagozkio, 2012an baino 215.000 € gutxiago. Udalkutxatik datozen sarrera horiek aurrekontu guztiaren %51 dira. Horrez gain, udalak udalkutxaren 2009ko eta 2011 ekitaldietako likidazio negatiboak itzultzeari ekin beharko dio, guztira 151.589,84 €. Hori bai, udalak ez du inolako zorrik finantza erakundeekin.

Gastuari dagokionez, %53a ematen ditugun zerbitzuei aurre egiteko erabiliko da eta %5,4 inbertsioak gauzatzeko. Pertsonal-gastuak aurrekontuaren %27a dira, baina bai udal langileen bai hautetsien eta alkatetzaren soldatak 2008tik izoztuta daude.

Inbertsioei dagokienez, ondorengoak egingo dira:

- Barrena kaleko tunela handitzeari dagozkion lanak amaituko dira.
- RENFEko tunelaren ondoko lur gaineko aparkaleku berriari dagozkion lanak amaituko dira.
- Dimutioko erreka saneamendu-kolektorea konpontzeko lanak amaituko dira.
- Argi-kutsadura kontrolatzeko argiteria publikoa egokitzea eta berritzea.
- Leitoki ikastetxean segurtasun sistema ezartzea.
- Ugao-Miraballestik ibilbide ekologikoak: Sare berdea (udalak %80an diruz lagundua).

Informazio gehiago: <http://bit.ly/11UKQ3A>



Udalak euskararen erabilera sustatzeko neurri zehatzak jarri ditu abian

Ugao-Miraballesko Udala hizkuntza normalizazioa lortzeko eta euskaraz bizitzea posible izateko asmoz neurri desberdinak ezartzen ari da. Herritarrei begira, udalak euskaraz eskaintzen dituen zerbitzuak egunetik egunera areagotu nahi ditu. Horrez gain, herritarrekin izaten dituen harremanetan euskara lehenesteko neurri zehatzak ezartzea erabaki du. Horrela, jarraituko dituen hizkuntza irizpideak Udaltzazak onartu ostean, ezarriko duen lehenengo neurria honako hau izango da: udalean ahoz zein idatziz eskaeraren bat euskaraz egiten dutenek (errola-ziurtagiria, baimenak...) dago-kion erantzuna (ziurtagiria bera, agiriren bat...) euskara hutsean jasoko dute. Bestalde, eskaerak gaztelaniaz egiten dituztenek dago-kion erantzuna elebitan (euskara/gaztelania) jasoko dute. Hala ere, edozein herritarrek udalari eskatu ahal izango dio jasoko duen erantzuna euskara hutsean edo elebitan izatea.

Eta euskararen erabilera sustatzeko neurriekin jarraituz, udaletik "Egin daigun euskeraz" kanpainari ekingo zaio. Kanpaina honen bidez Ugao-Miraballesko herritarrek udaleko edo sartzen den komertzioetako langilea euskalduna den jakin ahal izango dute. Euskaraz daki-gunok asko gara, egin daigun euskeraz!

Ugao-Miraballesko Udalak jasangarritasunerako Tokiko Agenda 21 berria onartu du osoko bilkuran

Ugao-Miraballesko Udalak Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plan berria onartu du apirillean burututako osoko bilkuran.

Ugao-Miraballesko Ekintza Planak 72 ekintza ditu guztira, hauek 20 programatan banaturik eta 7 ildo estrategikotan sailkatuta. Plan hau diseinatzerakoan hainbat eragilek parte hartu dute: udal teknikari eta talde politiko ezberdinak eta herritarrek parte-hartze foroan, on-line bidezko galdetegia eta eskualde mailako inkestaren bidez.

Laburpen gisa, hona hemen datozen urteotan nolako Ugao-Miraballes nahi dugun azaltzen duen adierazpen laburra:

“2020 urtean, Ugao-Miraballes **urbanistikoki kohesionatua**goa eta garraio publiko bidez ingurunearekin eta Bizkaiko hiriburuarekin **oso ongi komunikatua dagoen udalerria da**. **Oinez eta bizikletaz mugitzeko aukera asko eskaintzen** ditu ibaiaren inguruan dituen oinezko eta bizikletentzako ibilbideen bitartez eta beste udalerriekin duen loturaren bitartez. **Bizitzeko herri lasaia eta segurua da, bertako haurrak aske jolas egin eta dibertitzen** dira. **Ugao**ko biztanleriaren **izakia aktiboa elkarrekin duten funtsezko paperean** islatzen da, hauek dira herri-bizia dinamizatzen dutenak hein handi batean. Antolatzen diren ekintzetan **gizarte-erantzun maila altua bermatzen da**.

Ugao-Miraballesek **biztanleriari eskainitako zerbitzuetan kalitatea** eskaintzen du, **merkataritza** dinamikoa eta gertuko du eta **kirol eta kultura** ekipamenduek biztanleriaren eskaria asetzen dute. Guzti honi herrian dagoen **hezkuntza eskaintza** gehitzen badiogu, Ugao-Miraballes **inguruko landa herrientzako erreferente bat** bihurtu dela ondorioztatu dezakegu”.

Informazio gehiago: <http://bit.ly/14sIKoI>



Tratu txar eta sexu-erasoen biktimak artatzeko zerbitzua

Ugao-Miraballesko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak tratu txar eta sexu-erasoen biktimei Arreta Psikologiko Zerbitzua ematea ahalbidetuko duen hitzarmena sinatuko dute datozen egunetan.



Ugao-Miraballesko Udalak maiatzaren 28an egin den Udalbatzan eman dio oniritzia. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak ere Gobernu Kontseiluan aipatutako hitzarmena onartu du.

Bizkaiko Foru Aldundiak tratu txar eta sexu-erasoen biktimak Artatzeko Zerbitzua Bizkaia osotik hedatzen jarraitzen du.

Aurrerantzean Nerbioi Garaia osatzen duten udalerriek Ugao-Miraballesen astean behin emango den zerbitzu hau izango dute. Zerbitzua udaletxeko azken solairuan eskainiko da, gizarte-zerbitzuak kokatzen diren lekuan, 8:00etatik 15:00etara.

Tratu txar eta sexu-eraso kasuetan ematen den arreta psikologikoan espezializatutako familieren esku-hartze zerbitzua da. 1992an abian jarri zenetik zerbitzua haziz joan da, eskaerak ere areagotu egin baitira. Pertsonal eta arreta orduak gehitzeaz gain, azken urteotan Lea-Artibai eta Enkarterrin lokalak prestatu dira, horrela biktimganako arreta deszentralizatuz.

2012an Aldundiak guztira 1.100 pertsona aratu zituen, horietatik 568 kasu berriak.

Esku-hartzea honetan datza: banakako arreta psikologikoa, banakako laguntza psikologiko tratamenduak eta psikoterapia eta artatutako kasuen jarraipena.

Udalak herrian bertan eskainiko diren euskara ikastaroak eta Berbalagun taldeak sustatuko ditu

Hilabete honetan amaituko dira Ugao-Miraballesen eskaini diren Berbalagun taldeak zein euskara ikastaroak. Hauetan 42 herritar aritu dira euskara ikasten zein dakiten euskara hobetzen. Udalak, herrian bertan ikastaroak antolatzearen garrantziaz jakitun, datorren ikasturtean Berbalagun taldeetan zein euskara ikastaroetan izena emateko prest zenbat jende dagoen jakiteko epea zabaldu du. Horretarako, interesa duenak Jane Jauregian eman ahal izango du izena ekainaren 15etik abuztuaren 30era bitartean. Irailean, matrikulazio-epe ofiziala zabaldu ostean, izena emandakoei deitu egingo zaie, jakiteko 2013/2014 ikasturtean izena emango duten eta horrela Ugao-Miraballesen bertan taldeak osatzea posible den. Berbalagun eta ohiko euskalduntze ikastaroez gain, berrikuntza gisa, euskararen inolako ezagutzarik ez dutenei begira lehenengo urrats berezia eskainiko da, ikasleen beharrezanetara moldatuko dena.

Egitasmo hau Ugao-Miraballesen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusitik -EBPN- abiatzen da. Plan honek hartzen duen esparruetako bat euskalduntze-alfabetatzea da, eta esparru honetan aurrera eramango diren ekin-tzen artean honelako egitasmoak - euskara ikastea sustatuko dutenak - abian jartzea aurrakusten da. 2012/2013 ikasturtean guztira 44 herritar egon dira euskara ikasten udal euskaltegian, Arrigorriagako instalazioetan zein herrian bertan. Horrez gain Ugao-Miraballesen bertan eskaini diren 3 Berbalagun taldeetan beste 13 herritar egon dira.



Dantzari Egun arrakastatsua

Bizkaiko 3.500 dantzari baino gehiagok hartu zuen parte Ugao-Miraballesen, bigarren urtez jarraian, antolatu den 2013ko Dantzari Egunean. Maiatzaren 19an ospatu zen Bizkaiko dantzarien Biltzarrak eta Etoriki Dantza Taldeak antolatutako egunpasa arrakastatsua. Dantzari Eguneko ekitaldiak 11,00etan hasi ziren, plazatik abiatutako kalejira batekin, eta berau futbol zelaian amaitu zen 80 talde partehartzaileen erakustaldiarekin. Gernika enparantzan "Musika Txokoa" antolatu zen, eta bertan edozein musikaririk bere trebetasunak jendarean erakusteko aukera izan zuen. Bestalde, jende ugari batu zen baita ere Elkartasuna kalean antolatutako folklore azokan. Azkenik, egunari amaiera emateko, arratsaldean asko izan ziren

Ugao-Miraballesen batutakoak Luhartz taldearen eskutik erromerian dantzan aritzeko.

Folklore konzentrazio honek Ugao-Miraballesen bere 32. edizioa ospatu zuen eta anfitrioi lanetan ezin hobeto aritu ziren Etoriki dantza Taldeko kideak. Udalak aukera hau aprobetxatu nahi du bolondresei, herriko elkartei, bereziki "Etoriki"ri, eta erakunde guztiei eskerrak emateko, euren lana ezinbestekoa izan baita egitasmo aurrera ateratzeko.





“Javieldelestanco” Hirugarren argazki lehiaketa

Ugao Mendi Taldeak abian jarri du ingurumena protagonista duen “Javieldelestanco” argazki lehiaketa. Lehiaketaren gaiak ingurumenaren zainketa eta kontserbazioarekin lotutako arloak, ingurumenean dauden espezie adierazgarrietakoak, gizakiaren eragina... izan daitezke.

Lehiaketan edonork parte hartu ahal izango du, banaka, eta lanak jatorrizkoak eta berriak izan beharko dira. Beste lehiaketaren baten argitaratutako eta saritutako lanak ezin izango dira aurkeztu. Argazkiek gutxienez 20x25 cm-ko tamaina izan beharko dute.

Lanak 2013ko apirilaren 1etik uztailaren 29ra bitartean postaz edo eskura entregatu ahal izango dira. Eskura emango dituenak Javieldelestanco tabako-dendan utzi beharko –Udiarraga kalea 36 – 48490 – Ugao-Miraballes, Bizkaia-.

4 sari egongo dira, lehen hirurak eta “herriko onenarentzako saria” deituko diogun laugarren bat. Hau soilik banatuko da lehen hiruren artean Ugao-Miraballesen erroldatutakorik ez baldin badago. Egileren batek ere ezin izango du sari bat baino gehiago jaso.

Epaimahaia 5 adituk osatuko dute, eta lehiaketaren ardura-dun nagusia Ugao Mendi Taldea izango da.

Sariak 2013ko irailaren 5ean arratsaldeko 18,30etan Kultur Etxean banatuko dira, eta lan azpimarragarrienak Kultur Etxean bertan (Hiru hodidun iturria) ikusgai egongo dira herriko jaietan.

Informazio gehiago: <http://bit.ly/17qstW2>

Ugao-Miraballesek “Burdinezko Hesiaren 2. astea” hartuko du



Ekainaren 9an emango zaio hasiera Ugao-Miraballesko udalerrian antolatu den “Burdinezko Hesiaren 2. astea”ri. Astea “Burdin Hesia Ugaon/ Cinturón de Hierro de Ugao” herriko elkarteak antolatu du Historia Ezagutzeko Zentroaren eta Ugao-Miraballesko Udaleko

Kultur sailaren laguntzarekin. Antolatutako ekitaldiak ekainaren 16an, igandez, amaituko dira.

“Burdinezko Hesiaren 2. aste” honek hasteko eta amaitzeko Ugao-Miraballesko hiribilduan dagoen Hesira bisitaldi gidatuak izango ditu. Ekainaren 11n Joseba Eigurenek “Presoak Urduñako Konzentrazio-esparruan 1937-1939” izeneko hitzaldia eskainiko du, eta ekainaren 13an Ascensión Badiolaren eskutik “Espetxeak eta Konzentrazio-esparruak Bizkaian 1937-1940” hitzaldia entzuteko aukera egongo da.

Egitaraua Ugao-Miraballesek ekainaren 14ko goizeko 11,30etan jasandako bonbardaketa oroitzeko ekitaldi sinboliko batekin osatuko da. Egun eta ordu berdinean bonbardaketan hildako herritar biak omentzeko ekitaldi bat egingo da. Ekitaldia oroimen-plaka ezarritako lekuan egingo da (Udiarraga kaleko 53 zenbakian).

Informazio gehiago: <http://bit.ly/145L7eg>

2013ko San Joan jaiak



Ugao-Miraballesek ekainaren 23an San Joan jaiak ospatuko ditu. Jaiak 2013ko jai batzordeak antolatu ditu eta aurten egun bakarrean ospatuko dira. Egun horretan Markio auzoan egiten diren ekitaldiez gain Herriaren enparantzan ohiko sua piztuko da.

EKAINAK 23, IGANDEA

10:30 Kalejira Markiora txistulariek alaituta, (plazatik Markiora)

12:00 Meza Markioko San Joan ermitan

13:00 Etorri Dantza Taldearen saioa (txikiak)

13:30 Trikitixak alaitutako luntxa Markion

14:00 Txapelketan izena eman duten paellen aurkezpena, jarraian paella txapelketako sari-banaketa

14:15 Puzgarria Markion

17:00 Erromeria Markion

20:30 Berbena plazan, 1. emanaldia

22:30 San Joan sua herriaren enparantzan, jarraian txokolatada

24:00 Berbena plazan, 2. emanaldia

Oharra: Markiora igotzeko autobus-zerbitzua egongo da

OGORATU...

- **Udalbatzetako aktak kontsulta** ditzakezu www.ugao-miraballes.net udal webgunean (Udala: **aktak**).
- **Iradokizunak bidal** ditzakezu www.ugao-miraballes.net udal webgunearen bidez (orri nagusiko eskuinaldean: **iradokizunak**), edo idatziz
- **Ekainaren 9an**, Ugao-Miraballesko Burdinezko Hesira bisitaldi gidatua
- **Ekainaren 10 eta 12an**, Lehen Sorospen ikastaroa Gaztelekuan
- **Ekainaren 11n**, “Presoak Urduñako Konzentrazio-esparruan 1937-1939” hitzaldia Jane Jauregian
- **Ekainaren 13an**, “Espetxeak eta Konzentrazio-esparruak Bizkaian 1937-1940” hitzaldia Jane Jauregian
- **Ekainaren 14an**, Udiarraga kaleko 53. zenbakian bonbardaketa oroitzeko ekitaldi sinbolikoa
- **Ekainaren 14an**, Haurreskolako behin-behineko zerrenden argitarapena
- **Ekainaren 15etik abuztuaren 30era**, 2013/2014 euskara ikastaroetan edo Berbalagun taldeetan izena emateko interesa dutenentzako epea zabalik
- **Ekainaren 17tik 28ra**, Haurreskolako erreklamazioak eta subsanazioak egiteko epea zabalik
- **Ekainaren 24tik uztailaren 19ra** “Udaludo” udalekuak
- **Ekainaren 24tik 28ra** Multiabentura (12-14 urtekoak)
- **Uztailaren 1etik 5era** Multiabentura (15-17 urtekoak)
- **Uztailaren 10ean**, Haurreskolako behin betiko zerrendak argitaratzea
- **Uztailaren 29ra** arte “Javieldelestanco” 3. argazki lehiaketan lanak emateko epea zabalik
- **Irailaren 5ean**, Umeak Haurreskolan hasteko lehenengo eguna